

EBAZPENA, 2026ko URTARRILAREN 5ekoa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN 2026ko DEIALDIKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEN DUENA

Gertakari hauek egiaztatu dira:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- 2025eko urtarrilaren 29an argitaratu zen Lehiaketa Publikoa, Irakasle Laguntzaile Doktoeren Kontratuak Esleitzeko EHUko Web Orrian.

Bigarrena.- Ebazpen horren arabera: "Instantziak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 30tik 2026ko otsailaren 19ra bitartekoa da (biak barne).

Hirugarrena.- Gaur, PADCL2-D00042-6, PADCL2-D00054-14, PADCL2-D00054-19, PADCL2-D00093-19, PADCL2-D00093-20, PADCL2-D00103- 19, PADCL2-D00158-6, PADCL2-D00158-14, PADCL2-D00336-11, PADCL2- D00336-12 eta PADCL2-D00350-18. Plazei eragiten dien zuzenketa argitaratu da.

Aurrekari horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. - Eskumena.

Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera (2025eko otsailaren 19ko EHAA). Ebazpen horren bidez, errektorearen eskumenak eskuordetu eta haren gobernu-taldearen funtzionamendu-arloak egituratu eta zehaztu ziren.

Bigarrena.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 32. 1 artikuluan: «Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. *Luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi beharko zaie.*

Hirugarrena. – EHAUren web orrian gaur argitaratu den akatsen zuzenketaren ondorioz, beharrezkotzat jo da eskabideak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 26ra arte luzatzea. Luzapen horrek legezko manuan eskatutako denbora-mugak betetzen ditu, eta, gainera, ez die kalterik eragiten hirugarrenei.

Adierazitakoarengatik,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- UPV/EHUko errektorearen 2026ko urtarrilaren 29ko Ebazpenari buruzko eskabideak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 26ra arte luzatzea. Ebazpen horren bidez, irakasle laguntzaile doktoreen plazak eskuratzeko lehiaketarako deia egin zen.

Bigarrena. – Gehieneko epea luzatzeko ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka bidezkoa dena baztertu gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Leioan, sinadura digitalaren egunean

ERREKTOREA

Eskuordetzaz: Efen Areskurrinaga Mirandona (errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, 2025eko otsailaren 19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen errektoreordea/Vicerrector de Personal Docente e Investigador